
Uribe-Butroiko berbakune ikastaldiak
12 ekitaldi
2 orduko 5 saio, 18:00-20:00
1. irailak 21-25 Sopelan
2. urriak 5-9 Plentzian
3. urriak 26-30 Lemoizen
4. azaroak 9-13 Gatikan
5. azaroak 23-27 Gorlizen
6. urtarrilak 11-15 Berangon
7. otsailak 1-5 Barriken
8. otsailak 22-26 Laukizen
9. martxoak 8-12 Jataben
* Izena emon+argibideak: non@ni.eus
652 73 73 06 non.eus
* 10 euroko ordainketa egin behar da aurrez aurreko (1-9) ekitaldietan.
Online formatuan, 18:00-21:00
10. abenduak 2, 9 eta 16
11. apirilak 7, 14 eta 21
Akabua
12. apirilak 10 Urdulizen
zapatua 09:00-12-00
Gilisasti Fano
URIBE KOSTA
orbizta

Aurtengo **BERBAKUNE** ikastaldien ostean, beste hamabi ekitaldi egin gurako geunkez. Lelengo 9ak presentzialak, atsaldeko seiretatik zortziretara, ilenatik barikure. Sopelan, Plentzian, Lemoizen, Gatiken, Gorlizen, Berangon, Barriken, Laukizen eta Jataben gabiltzez euskaldunek deike, bertoko berbaeran ahozkotasun-ezaugarrik landuteko alkarregaz.

**Non@ni.eus** postan emon behar dau izena parte hartu gure daunek, zein udalerrin ekin gure daun esanda. Oingon, hamar euro kobrako dakoz ikasleri. Orbizta elkarten eta Uribe Kostako Mankomunitaten laguntzinoz argitaratuparri dan "*Uribe-Butroiko berbakune ikastaldiak*" liburu banatuko da. Kopia-dendatikeran dator ikasgelara, **non.eus** guneko material-osagarriz beterik (A4 neurriko 200 orrialde).

Aurrez-aurreko 9 ekitaldiok, bi orduko bost saio direz udalerri bakotxean. Irakaspen bera landuko da ekitaldiko. Modu eta gogorik izango daunentzat, etxerako ariketak bere banatuko direz, ikasketa sendotuteko. Faltan ikusi ahal dozuen informazino edo zehaztapenak, non@ni.eus postan eskatu edo emon zengize. Osten, 652 73 73 06 telefonora geitute bere argitu gengiz.



*Îtten dózune ítten dozule,*
*éuskeraz báda,*
*olè!*

*Uríbe-Butroin hízkera zaharra*
*bizirik dála,*
*hobè!*

Online formatoan ekiteko, norberan izena emon behar dau interesa dekonak; konturetu, aurretizik, bitarteko tekniku, trebaketa eta irakaspena bera bere, prestatu egin behar doguzela. Abenduko online-eguaztenetara apuntaten danak, lau hirukotetako batean egingo dau talde. Ordu t'erdiko hiru saiotan parte hartuko dau bakotxak, bi taldeka. Gehienez 12 ikasle egongo dire abenduan eta beste 12 apirilean.

| | | |
|---|---|---|
| Abenduak 2:<br>Apirilak 7: | **18:00-19:30**<br>1,2,3 + 4,5,6 | **19:30-21:00**<br>7,8,9 + 10,11,12 |
| Abenduak 9:<br>Apirilak 14: | **18:00-19:30**<br>1,2,3 + 10,11,12 | **19:30-21:00**<br>4,5,6 + 7,8,9 |
| Abenduak 16:<br>Apirilak 21: | **18:00-19:30**<br>1,2,3 + 7,8,9 | **19:30-21:00**<br>4,5,6 + 10,11,12 |

Urdulizkoa, ekitaldi zabal bat izango da; ez da izenik emon beharko. Orbiztak, esku artean darabilguzen erronkak agertuteaz ganera, hizkeren aldeko antolakuntza eta ekimenak azalduko dauz. Sorpresatxu politten bat bere ez da faltako.